



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITIRA IRAURGI SASKIBALOI TALDEAK EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN ZENBAIT ERABAKIREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAK.

Espedienteak: 1/2017 eta 2/2017

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak/andreak, IRAURGI SASKI BALOIA taldearen izenean eta haren ordezkari, 2016ko abenduaren 30ean hainbat errekurtsu aurkeztu zituen (Federazioan 376 eta 377 zenbakiekin erregistratutakoak) Euskal Saskibaloï Federazioaren (hemendik aurrera, ESF) Hauteskunde Batzordearen hainbat erabakiren aurka.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horiek izapidetzea onartu zuen, eta alderdi errekurrituari jakinarazi zion hamabost laneguneko epea zuela zegokion alegazio-idazkia aurkezteko eta, behar izanez gero, egokitzen jotako froga-izapideak proposatzeko.

HIRUGARRENA.- Otsailaren 8ko sarrera-erregistroa duen idazki baten bitartez, ESFaren idazkariak helarazpenari erantzun zion eta eskatutako dokumentazioaz gain, alegazio-idazkia ere aurkeztu zituen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138.b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBak du errekurtsu hau ezagutzeko eskumena.



BIGARRENA.- Adierazi denez, errekurtsua egin duen taldeak bi errekurtsu aurkeztu ditu –guk 1/2017 eta 2/2017 zenbakiekin identifikatu ditugu- Euskal Saskibalo Federazioak 2016ko abenduaren 20an hartutako erabakien aurka, eta gerora, hil horren 23an ezetsi egin ziren.

Hori horrela dela, eta bien artean lotura estua dagoenez, biak metatzea erabaki da.

HIRUGARRENA.- Aurkaratutako erabakietatik lehenengoa honela identifikatu du errekurtsoan:

[“Eusko Jaurlaritzari kontsulta egin zaio, Euskal Saskibalo Federazioaren Batzar Nagusirako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan aplikatu beharreko araudiari buruzko atzoko eta gaurko idazkiei dagokienez, eta Sail horretatik jaso dugun erantzuna erreproduzituko dizugu jarraian:

“Euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 5.1 artikuluari jarraikiz, "Kirol federazioek hauteskunde-erregelamendu bat izango dute ezinbestez".

Hori esan ostean, gure ustez, Batzar Nagusiak erregelamendu horiekin arautuko dira, hau da, Lurralde Federazioetan hauteskundeak egiten direnean dagokien Hauteskunde Erregelamendua aplikatuko dute, eta Euskal Federazioak bere Hauteskunde Erregelamendua.

Agindu horren 6.2.k artikulua araberak, "Hauteskunde Batzordearen eginkizuna da kirol klub edo elkarte bakoitzari dagokion boto haztatua aplikatzea, estatutuetan boto hori aurreikusita badago."

Euskal Saskibalo Federazioaren estatutuetan ez da biltzen boto haztatuaren erabilera, eta ez dago hori erabiltzera behartuta, nahiz eta Lurralde Federazioek beren hauteskundeetan erabili (beren Hauteskunde Erregelamenduetan araututa izanez gero/otsailaren 19ko Aginduaren 5. xedapen gehigarriaren 3. zenbakia).



Goian planteatutako guztiagatik, eta euskal federazioaren estamentuetarako bozketa egiten ari dela kontuan hartuta, Euskal Saskibaloï Federazioaren erregelamendua da aplikatu beharrekoa,"].

Erabaki horri dagokionez, Batzorde honek erabat deuseza deklaratzeko eskatu du eta, horren ondorioz, honako hau erabaki dadila:

a) Batik bat, Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren klubean estamenturako bozketa –2016ko abenduaren 20an izan zen– ondoriorik gabe uztea, eta Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren beste Batzar baten deialdia egin beharko da, Federazio horrek Euskal Saskibaloï Federazioaren klubean estamentuan izango dituen ordezkariak hautatzeko, boto haztatuaren irizpideari jarraikiz;

b) Modu subsidiarioan, nolana ere, Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren klubean estamentuko bozketa –2016ko abenduaren 20an izan zen– ondoriorik gabe utzi beharko da, eta Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren beste Batzar baten deialdia egin beharko da, Federazio horrek Euskal Saskibaloï Federazioaren klubean estamentuan izango dituen ordezkariak hautatzeko, baina Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ezartzen duen irizpideari jarraikiz betiere.

LAUGARRENA.- Bestalde, errekurritutako bigarren erabakiak honako hau dio:

[“Hauteskunde Batzorde honek, Federazio horretako batzarkideek aurkeztutako salaketaren bitartez, zera jakin du: ALDABE BCTO. IRUN C.D., ALOÑA MENDI K.E., BEASAINGO K.L., ERROIBIDE C.D. IRUN eta ESKORIATZA K.E. taldeek ordezkari-aldaketak aurkeztu zituztela Gipuzkoako Federazioan eta ezarritako epearen barruan, Euskadiko Batzar Nagusian izango dituen ordezkariak hautatzeko Ezohiko Batzarrean gaur izango den klubean estamenturako bozketara joateko.



Gipuzkoako Federazioak gaur 13:50ean jakinarazi du Batzarrean parte hartuko duten klubetako ordezkarien behin betiko zerrenda, eta goian aipatu ditugun bost klubak zerrenda horretatik kanpo geratu dira.

Gipuzkoako Federazioak berak jakinarazi duenez, Batzarrerako ordezkarietan aldaketak aurkezteko epea gaur, abenduaren 20an, asteartearekin, amaitzen zen, 12:00etan. Alegia, ordezkari-aldaketa ukatu zaiela jakinarazi zaie bost taldeei baina epea amaitu ostean, eta beraz, ez dute akatsa zuzentzeko eskubiderik izan eta ez dute beste ordezkari bat aurkezteko aukerarik izan.

Hauteskunde Batzorde honen ustez, klubei epearen barruan jakinarazi behar zitzaizkien ordezkari-aldaketa egiteko eskaerak ukatu zitzaizkiela, beste ordezkari bat aurkeztu ahal izan zezaten.

Halaber, Gipuzkoako Federazioaren erabaki horren bitartez, biltzarkide orok hauteskunde-prozesu batean parte hartzeko duen eskubidea urratzen delakoan gaude, dela hautagai moduan, dela hautesle moduan; bestalde, prozesuak ahalik eta gardenena izan behar du eta ahalik eta kide gehienen parte-hartzea ahalbidetu behar du.

Hortaz, Hauteskunde Batzorde honek zera ebatzi du, aipatutako klubek aurkeztutako ordezkari-aldaketen balio gabetzea ezeztatzea, eta beste ordezkari-aldaketa bat aurkezteko aukera ematen die, ezohiko moduan; horretarako, Federazio horrek bost klubekin harremanetan jarri beharko du eta aldaketa hori onartu, nolahi ere, gaurko 19:00ak arte”].

Erabaki honen aurka aurkeztutako errekursoaren arabera –1/2017 espedientea–, ebazpen horien erabateko deuseztasuna deklaratzeko eskatu du eta, horren ondorioz, 2016ko abenduaren 20an izandako GSFaren klubetako estamentuko bozketa ondorioz gabe uztea; horrenbestez, GSFaren beste Batzar baten deialdia egin beharko da, Federazio horrek ESFaren klubetako estamentuan izango dituen ordezkariak hautatzeko, baina Aldabe BCTO. Irun C.D., Aloña Mendi K.E. , Beasaingo K.L., Erroibide C.D. Irun eta Eskoriatza K.E. klubek ezin izango dute parte hartu.



BOSGARRENA.- GSFak euskal federazioaren Batzar Nagusiko klubuen estamenturako ordezkariak hautatu behar dituzenean gertatu dira aztergai ditugun egitateak.

Errekurtsogilearen ustez, ESFaren Hauteskunde Batzordearen esku-hartzea prozesua arautzen duten arauen aurkakoa da; aldiz, ESFaren Hauteskunde Batzordeak uste du baduela ahalmenik aurkezten diren inpugnazioak ebazteko eta hauteskunde-manuak interpretatzeko.

Eztabaida horrela proposatuz gero, aurrez esan dezakegu hauteskunde-prozesu honen berezitasunetako bat zera dela, ESFaren Hauteskunde Batzordeari beste federazio batzuetan egiten diren hauteskundeak kontrolatzeko ematen zaion ahalmena, eta kasu honetan, Gipuzkoako lurralde-federazioan.

Izan ere, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko (hemendik aurrera, Agindua) 57. artikulua honako hau dio: “57. artikulua.- Lurralde federazioen ordezkariak hautatzea.

1.- Lurralde federazioek epe bat izango dute euskal federazioaren Biltzar Orokorrean izango dituzten ordezkariak hautatzeko. Epe hori euskal federazioaren hauteskunde-erregelamenduak zehaztuko du.

2.- Lurralde federazioen estamentuek Euskal Federazioaren Biltzar Orokorrean kideak izendatu ondoren egingo dituzten beren bozketak. Lurralde federazio bakoitzaren presidentearen eginkizuna izango da Biltzar Orokorrearen ohiz kanpoko bilkuraren deialdia egitea, haren hautagaiak hautatzeko. Estamentu bakoitzak bere bozketa egingo du.

3.- Lurralde federazioetan hautatzen diren euskal federazioen Biltzar Orokorreko kideak, lurralde federazioetako kideak izango dira.

4.- Aurrekoa gorabehera, ordezkari horiek zertzen dituzten bozketak euskal federazioaren Biltzar Orokorra eratzeko hauteskunde-ekintzat hartuko dira; ondorioz, bozketa horien legezkotasunaren kontrola euskal federazioaren beraren Hauteskunde Mahaiari eta Hauteskunde Batzordeari dagokie”.



Testuinguru horretan epaitu behar dira aurkeztutako errekursoak, Hauteskunde Batzordeak "legezkotasuna kontrolatzeko" bete duen eginkizunak salatzen diren akatsak badituen ala ez dituen argitzea, alegia.

SEIGARRENA.- LEHENENGO ERREKURTSOA.

Inpugnatzeko honako arrazoi hauek ematen ditu, honako urraketa hauetan zehaztuta: **a)** 30/1992 Legearen 35. eta 62. artikulua; **b)** Aginduaren 6.2, 17., 57., 3.5, 21.2, 39.b eta 55.1 artikulua; **c)** ESFaren Hauteskunde Erregelamenduaren 42. artikulua; **d)** GSFaren Estatutuetoako 16. artikulua, eta **e)** legitimaziorik ez administrazio-prozedura hau eragin zuen salaketa aurkezteko.

1.- Beste ezer baino lehen, prozesuaren frogaldia egitea onartzeko eskaerari dagokion errekursoaren **BESTE BATZUKI LEHENENGOA** atalean planteatutako gaiari heldu behar diogu, "ESFaren Hauteskunde Batzordeak eskatutako kontsultaren ebazpena –guk errekurritu ditugun erresoluzioetan aipatzen dena– barnean hartuta".

Gai hori aipatu du Hauteskunde Batzordeak alegazioetan, eta onartzen du "erantzunaren" egilea ez dela Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, baizik eta "AFIANZA" bulego profesionala, harengana jo baitzen Saileko langileen argibideei jarraikiz.

Txostena nork egin zuen argitu ostean, txosten hori, hala badagokio, Aginduaren 20. artikuluan aurreikusitako aholkularitzako eginkizunen barruan txertatu behar dela nabarmendu nahi dugu; baina txostena ez da nahitaezkoa, ez eta loteslea ere, inolaz ere.



2.- Sakoneko arrazoiak aztertzeari ekingo diogu; Batzorde honen ustez, erabakiak ez ditu urratzen 30/1992 Legearen 35. artikulua a), b) eta h) letrak, eta ez du betetzen Lege horren 62. artikulua 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako erabateko deuseztasuneko kasu bat bera ere.

Horri dagokionez, hasteko, 30/1992 Lege hori indargabetuta dagoela zehaztu behar dugu; horregatik, alegazioak ez ditugu aztertuko aipatutako legeriaren arabera, baizik eta 39/2015 Legean jasotzen diren bat datozen printzipioen arabera, aurreko lege horren ondorengo den aldetik, partzialki, 40/2015 Legearekin batera.

Hori horrela dela, Hauteskunde Batzordeak ez du urratu aipatutako printzipioetatik bat bera ere –herritarren eskubideen esfera juridikoa eta erabateko deuseztasunaren kasuak–; aitzitik, hauteskunde-araudiaren babespean eta gidaritzapean jardun du, eta Batzorde honek ez du ikusten arrazoirik salatutako kasuren bat betetzen dela esateko.

3.- Beste horrenbeste esan behar dugu Aginduaren 3.5, 21.2, 39.b) eta 55.1 artikulua eta 17. artikulua urratu direla justifikatzeko ematen dituen arrazoiak dagokienez.

Horrela, bada, ez da ezertan urratzen Aginduaren 21.2 artikulua (lurralde-federazioetako biltzar orokorretako kideek osatuko dute euskal federazioen hauteskunde errolda), hauteskunde-errolda ez baitzen onartu abenduaren 20ko batzarrean; eta Hauteskunde Batzordeak eman zuen behin betikotzat onartua abenduaren 9ko bileran, “aurkako errekurtsorik ez zelako aurkeztu”.

39.b) eta 55.1 artikulua ere ez dira urratzen, lurralde-federazio bakoitzari abenduaren 16an esleitu baitzitzaizkion ordezkariak. Bestalde, Aginduaren 3.5 artikulua zergatik urratzen den ez du azaltzen.



17. artikularen balizko urratzeari dagokionez, errekurtsogileak dio “(...) zera ulertu behar dela, 2016ko abenduaren 20ko ebazpena eman zuen Hauteskunde Batzordearen bileraren aktarik ez dagoela, zeren, bestela, akta hori aurkeztu beharko ziguketen” eta jarraian honako ondorio hau ateratzen du: “(...) prozedurazko irregulartasuna dela eta erabateko deuseztasuna dakarrela (...)”.

Akats hori aipatu du alegazioetan, halaber, Hauteskunde Batzordeak: “Hauteskunde Batzorde honen ustez Ebazpena jasotzen duen aktarik ez dagoelako Ebazpen horren deuseztasuneko alegazioa ez da bidezkoa, zeren, ikus daitekeenez, Ebazpen hori kideek nahi zutelako eta erabat jakinaren gainean egonda eman baitzen, premiazko eta urgentziazko uneetan, eta ezinezkoa izan zen kideak fisikoki biltzea, zegokion Akta egiteko; alabaina, eztabaida eta erabakia hartzea posta elektronikoaren eta telefonoaren bidez egin ziren Hauteskunde Batzorde honetako kideen artean. Erantsitako dokumentuetan ikus daiteke Hauteskunde Batzordeko idazkariaren eta presidentearen presentzia eta esku-hartzea izan zirela”.

Horiek horrela, Batzorde honek uste du erabat bete dela bai 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan, bai Aginduaren 17. artikuluan aurreikusitako xedeari; izan ere, “Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren saio bakoitzaren akta egin behar da, eta bertaratutako kide guztiek sinatu behar dute”.

Are gehiago, ESFaren Hauteskunde Erregelamenduaren 6. artikuluan ere aurreikusten da aukera hori, honela: "Premia gertatuz gero, Hauteskunde Batzordeak bere erabakiak posta arruntaren bidez, posta elektronikoz, faxez, konferentziaz, bideo-konferentziaz eta antzeko baliabide tekniko baliatuz har ditzake, kideek erabakiak jasoko dituzten bermea izanik eta berariaz onartzen badute. Horrelakoetan, Hauteskunde Batzordeko idazkariak kasuan kasuko



akta egingo du, federazioaren administrazio zerbitzuen laguntzaz, horrixe erantsirik eskutitz, fax eta antzeko agirien originalak."

4.- Azkenik, demandatzaileak ukatu egin dio xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunari prozedura hau eragin zuen salaketa jartzeko legitimazioa.

Horrela, bada, Batzorde hau bat dator Hauteskunde Batzordearekin, honela zehazten duen erabakiari dagokionez: "Zentzu berean, eta xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunaren legitimazioari dagokionez, Hauteskunde Batzorde honek hauteskunde-prozesua behar bezala garatzeko, aurkezten diren aurkaratze, erreklamazio eta eskaerak ebazteko eta hauteskundeak egitearekin nahiz ordezkariekin zuzenean lotura duten gaietarako ahalmen eta eginkizun zabalak dituela ikusita, proposatu zitzaion gaiari buruz iritzia eman behar zuela uste izan zen, ESFaren une horretako hauteskunde-prozesuan boto haztatua aplikatzea egokia edo bidezkoa zen ala ez jakiteko, errekurtsogilea Gipuzkoako Saskibalo Federazioko biltzarkide izate hutsagatik; azkenean, Hauteskunde Batzorde honen Ebazpenean adierazitakoaren arabera, abenduaren 13an eta abenduaren 19an Gipuzkoako Saskibalo Federazioaren hiru kontsulta jaso zituen".

ZAZPIGARRENA.- BIGARREN ERREKURTSOA.

Demandatzaileak aurka egiteko arrazoi hauek eman ditu: **a)** 30/1992 Legearen 62. artikulua urratzen du; eta **b)** Aginduaren 49.2, 55. eta 57. artikulua urratzen ditu.



Lehenengoari dagokionez –30/1992 Legearen 62. artikulua urratzea–, goian emandako argudioetara jo behar dugu.

Azkenik, Batzorde honen ustez errekurtsogileak ez du nahikoa arrazoirik eman Aginduaren 49.2, 55. eta 57. artikulua urratutzat hartzeko.

Azken batean, Aginduaren 57.4 artikuluan hauteskundeen legezkotasuna kontrolatzeko eskumena esleitzen zaio Hauteskunde Batzordeari, eta eskumen horrek ahalmena ematen dio aurkaratutako erabakiak hartzeko, dela aurkeztutako aurkaratzeak ebatzita, dela prozesuaren legezkotasuna bermatzeko egokiak diren neurriak ofizioz hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek

ERABAKI DU

IRAURGI SASKI BALOIA taldeak Euskal Saskibaloï Federazioaren Hauteskunde Batzordearen hainbat erabakiren aurka aurkeztutako errekurtsuak (Federazioan 376 eta 377 zenbakiekin erregistratutakoak) ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsu-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.



Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a

José Luis Aguirre Arratibel
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea